**BAZTAN BALLEKO UDALA**
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE Y UNIVERSIDAD DE BAZTAN -NAVARRA-

## 2013ko APIRILAren 25ko OHIKO OSOKO BILKURA
## *SESION PLENARIA ORDINARIA DE 25 DE ABRIL DE 2013*

Baztango Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2013ko apirilaren 25ean, arratsaldeko 7etan, Baztango Udaleko Osoko Bilkura bildu da, ohiko bilkuran, Garbiñe Elizegi Narbarte alkate anderearen lehendakaritzapean, eta zinegotzi hauek etorri dira: Mikel Ortega Arraztoa, Maria Teresa Oteiza Apecechea, Maitane Maritorena Azkarate eta Jon Elizetxe Bidegarai, BILDU taldekoak; Begoña Sanzberro Iturriria, Maria Carmen Iribarren Iribarren, Maria Isabel Olave Ballarena, Leopoldo Jaen Sobrino, Jose Mª Garmendia Arizmendi, UPN taldekoak; Florentino Goñi Telletxea, Iñigo Iturralde Eliceche BAZTANGO EZKERRA taldekoak; Maite Juliana ITURRE LLANO, NA-BAI (2011) taldekoa.
Idazkari lanetan, Iulen Urbiola Loyarte jauna ari da.

Alkate anderearen aginduz, bilkura hasi da.

**Garbiñe Elizegi, Alkatea**: Alde batetik, hitza eskatu beharko dela eztabaidareko eta hitza emango zaio eskatzen duenari, besteak hitz egiten ari denari errespetatuz. Eztabaida erronda irekiko da puntua azaldu ondoren, lehenengo txanda eginda eta beharra baldin bada, bigarrena irekiko da. Bozketa eginen da eta ondoren, boto azalpena egiterakoan parte hartu ez duenak, minutu bat izango du botoa azaltzeko, baina argitzeko, ez da onartuko boto azalpena erabiltzea eztabaida saihesteko, besteari erantzuna aukera ekiditen boto azalpena egiteko. Bozka azalpena erabiltzen dela ikusiz gero, bigarren erronda bat irekiko da nahi duenak erantzuteko aukera emanez.
**Begoña Sanzberro, UPN**: Ni ez nago ados beste boto azalpen aukera bat irekitzeko bidearekin. Boto azalpena behar denerako erabili behar da eta minutu batekoa izan behar badu, horrela izan beharko du. Ez dut uste boto azalpenak, beste eztabaida erronda ireki behar duenik.

*En la Sala de Sesiones del Ayuntamiento del Valle de Baztan, siendo las 7 de la tarde del día 25 de abril de 2013, se reúne, en sesión ordinaria el Pleno Municipal, presidido por la alcaldesa Garbiñe Elizegi Narbarte y con la asistencia de los siguientes concejales: Mikel Ortega Arraztoa, María Teresa Oteiza Apecechea, Maitane Maritorena Azkarate y Jon Elizetxe Bidegarai, del grupo BILDU; Begoña Sanzberro Iturriria, María Carmen Iribarren Iribarren, María Isabel Olave Ballarena, Leopoldo Jaén Sobrino, José Mª Garmendia Arizmendi, del grupo UPN; Iñigo Iturralde Eliceche y Florentino Goñi Telletxea del grupo BAZTANGO EZKERRA; Maite Juliana ITURRE LLANO, del grupo NA-BAI (2011).*
*Actúa como secretario, D. Iulen Urbiola Loyarte.*

*La alcaldesa da comienzo a la sesión. Con carácter previo:*

***Garbiñe Elizegi, Alcaldesa:** Por una parte, habrá que pedir la palabra para el debate y se dará a la persona que lo solicite. De esta forma los demás respetarán a quien esté hablando. Después de explicar el punto, se abrirá la primera ronda de discusión y en caso de ver necesidad se abrirá una segunda ronda. Se realizará la votación y a continuación los que no hayan participado en la explicación de voto, tendrán opción de explicar su voto en un tiempo máximo de un minuto. Con esto se evita utilizar la explicación de voto para dar la respuesta a otra persona. En caso de observar que se utiliza la explicación de voto, se dará opción a contestar a quien esté interesado en ello.*
***Begoña Sanzberro, UPN**: Yo lo único, no estoy de acuerdo en que se abra otro turno para explicación del voto. La explicación de voto tiene que ser para lo que tiene que ser, y tiene que ser de un minuto. No creo que la explicación de voto tenga que abrir otra ronda de debate.*

**Garbiñe Elizegi, Alkatea:** Nik ere, ez dut uste, egin behar denerako erabiltzen bada, ez dela erabili beharrik izango, baina ikusten bada horrela erabiltzen dela, horrela izango da.
**Isabel Olave, UPN:** Zein irizpiderekin zehaztuko da boto azalpena zuzena den edo ez? Eta nork?
**Garbiñe Elizegi, Alkatea:** Lehendakariak, nik.
**Isabel Olave, UPN:** Irizpideak aurretik ezagutuko ditugu?
**Garbiñe Elizegi, Alkatea:** Bai, ez duzula eztabaidarako erabiliko. Behin baina gehiagotan eztabaidarako erabiltzen duzue eta badakizue noiz erabili duzuen horrela.
**Isabel Olave, UPN:** Orduan, ez dago irizpide objetiborik, ez? Irizpide batzuk izan behar dira, baina objetiboak.

**1.- AKTAK ONARTZEA: 2013/02/28KO OHIKO SAIOA ETA 2013/03/22KO EZ-OHIKO SAIOA.**
2013/02/28ko ohiko batzarreko akta **ahobatez berresten da** eta 2013/03/22ko ez-ohiko batzarreko akta **ahobatez berresten da.**

**2.- BAZTANGO UDAL PLANAREN ALDAKETA. BEHIN BETIKO ONESPENA: ELIZONDOKO UE-11AKO BIRZATIKETA PROIEKTUA. JUAN LARREGUI ETA Mª PILAR GOÑI.**
Juan Larregui Urrutiak eta Maria Pilar Goñi Michelenak aurkeztu zuten UE-11-A exekuzio unitatearen birzatiketa proiektua. 2013/02/28an birzatiketa proiektuari hasierako onespena eman zitzaion. Jendeaurreko epea behin akituta eta kontuan harturik alegaziorik ez dela izan, Udalbatzak ahobatez **erabakitzen du:**
1.- Behin betikoz onestea Juan Larregui Urrutiak eta Maria Pilar Goñi Michelenak aurkeztutako Elizondoko UE-11-A exekuzio unitatearen birzatiketa proiektua. Hori guztia, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 76. eta 151. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.
2.- Erabakia Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea eta Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolamenduaren, Mugikortasunaren eta Etxebizitzaren Zuzendaritza Nagusira igortzea, baita ukituei ere, behar diren ondorioak izan ditzan, gai honetaz indarra duen legeriak agindutakoari jarraikiz.

***Garbiñe Elizegi, Alcaldesa:*** *Yo tampoco creo que será necesario si se utiliza para lo que es, pero si se ve que se utiliza así, será de esa forma como se utilice.*
***Isabel Olave, UPN:*** *¿Con qué criterio se va decidir si la explicación de voto ha sido correcta o no? ¿Y quién?*
***Garbiñe Elizegi, Alcaldesa:*** *La presidenta, yo.*
***Isabel Olave, UPN:*** *¿Los criterios conoceremos de antemano, no?*
***Garbiñe Elizegi, Alcaldesa:*** *Sí, que no se utilice para debate. Más de una vez lo empleáis para el debate y ya conocéis cuando lo habéis utilizado con ese fin.*
***Isabel Olave, UPN:*** *¿Pero entonces no hay criterios objetivos, no? Hay que tener una serie de criterios pero tienen que ser objetivos.*

***1.- APROBACIÓN DE ACTAS: SESIÓN ORDINARIA DE 28/02/2013 Y SESIÓN EXTRAORDINARIA DE 22/03/2013.***
*El acta de la sesión plenaria ordinaria de 28/02/2013 es* ***ratificada por unanimidad*** *y el acta de la sesión plenaria extraordinaria de 22/03/2013 es* ***ratificada por unanimidad.***

***2.- MODIFICACIONES AL PLAN MUNICIPAL DE BAZTAN. APROBACIÓN DEFINITIVA: PROYECTO DE REPARCELACIÓN UE-11A DE ELIZONDO. JUAN LARREGUI Y Mª PILAR GOÑI.***
*Juan Larregui Urrutia y María Pilar Goñi MIchelena presentaron proyecto de reparcelación de la UE-11-A. Con fecha de 28/02/2013 el proyecto fue aprobado con carácter inicial. Una vez pasado el tiempo de exposición pública y a la vista de que no hay alegaciones, el Pleno por unanimidad* ***acuerda:***
*1.- Aprobar definitivamente el proyecto de reparcelación de la unidad de ejecución UE-11-A de Elizondo, presentado por Juan Larregui Urrutia y María Pilar Goñi Michelena, todo ello de conformidad con lo dispuesto en los artículos 151 y 76 de la Ley Foral 35/2002, de 20 de diciembre, de Ordenación del Territorio y Urbanismo.*
*2.- Publicar el presente acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Navarra y dar traslado del mismo a la Dirección General de Ordenación del Territorio, Movilidad y Vivienda del Gobierno de Navarra, así como a los afectados, a efectos consiguientes, de conformidad con lo preceptuado en la legislación vigente en la materia.*

**3.- BAZTANGO UDAL PLANAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA: EGITURAZKO ALDAKETA. EUKENE XURIO.**

2013/03/12an Eukene Xurio Arburuak Baztango Udal Planeko egiturazko aldaketa puntualaren aldaketa tramitatzea eskatu zuen, 27. poligonoko 23. lurzatia oihaneko lurzorutik produktibitate ertaineko lurzorura pasatzeko. Proiektua Patxi Valer eta Gabriel Laborra arkitektoek egin dute. Udalaren hirigintza-aholkulariaren txostena (1304i050) kontuan izanik Udalbatzak ahobatez **erabakitzen du**:

1.- Hasiera batean onestea Baztango Udal Planeko egiturazko aldaketa puntualaren aldaketa, 27. poligonoko 23. lurzatia oihaneko lurzorutik produktibitate ertaineko lurzorura pasatzeko, Eukene Xurio Arburuak sustatua.

2.- Lurraldearen Antolamenduaren eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 79 artikuluan ezarritakoarekin bat, espedientea hilabetez egonen da jendaurrean, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzen denetik hasita; epe horretan, interesdunek eskura izanen dute espedientea Udalaren bulegoetan, egokiak iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten. Iragarkia Foru Komunitateko egunkarietan paratuko da.

3.- Aldaketa eta espedientea Lurraldearen Antolamenduaren, Mugikortasunaren eta Etxebizitzaren Zuzendaritza Nagusira igortzea, behar diren ondorioak izan ditzan, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak ezarritakoari jarraituz.

***3.- MODIFICACIONES AL PLAN MUNICIPAL DE BAZTAN. APROBACIÓN INICIAL: MODIFICACIÓN ESTRUCTURANTE. EUKENE XURIO.***

*Con fecha 12/03/2013 Eukene Xurio Arburua solicitó la tramitación de una modificación puntual estructurante del Plan Municipal de Baztan, en la parcela 23 del polígono 27, de suelo forestal a suelo de mediana productividad. El proyecto lo han redactado los arquitectos Patxi Valer y Gabriel Laborra.*

*Teniendo en cuenta el informe de la asesora municipal en urbanismo (ref. 1304i050), el Pleno por unanimidad **acuerda**:*

*1.- Aprobar inicialmente la modificación puntual estructurante del Plan Municipal de Baztan, para cambio de categoría de la parcela 23 del polígono 27, de suelo forestal a suelo de mediana productividad, promovida por Eukene Xurio Arburua.*

*2.- Someter el expediente y proyecto a exposición al público durante el plazo de un mes, mediante anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, y en dos diarios editados en Navarra, a fin de cualquier persona o entidad interesada pueda examinarlo y presentar las alegaciones que estime procedente, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 70 y 79 de la Ley Foral 35/2002 de 20 de diciembre de Ordenación del Territorio y Urbanismo.*

*3.- Remitir la modificación y el expediente a la Dirección General de Ordenación del Territorio, Movilidad y Vivienda, para sus efectos, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 35/2002 de 20 de diciembre de Ordenación del Territorio y Urbanismo.*

**4.- EBAZPEN PROPOSAMENA. BAZTANGO UDAL PLANEAN GARTZAINGO ETXERRIKO 14. POLIGONOKO 208. LURZATIAREN ALDAKETA OFIZIOZ BERRIKUSI.**

Baztango Udalaren 2013ko otsailaren 28ko osoko bilkurak erabaki zuen hasiera ematea Baztango Hirigintza Planaren aldaketa xehakatuaren behin betiko onespena zuzenbidean erabat deusez delako ofizioz berrikusteko administrazio-prozedurari, betiere Gartzaingo Etxerriko 14. poligonoko 208. lurzatiari dagokionez. Erabakia PROMOCIONES ZIOZ SL merkataritza-enpresako ordezkariei jakinarazi zitzaien, hamabortz eguneko entzunaldi-epea eman zitzaien eta epealdian alegazioak

***4.- PROPUESTA DE RESOLUCIÓN. REVISIÓN DE OFICIO DE LA MODIFICACIÓN DEL PMB EN LA PARCELA 208 DEL POLÍGONO 14 DE ETXERRI, GARTZAIN.***

*Por acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de Baztan adoptado en sesión ordinaria de fecha de 28 de febrero de 2013, se acordó el inicio de procedimiento administrativo de revisión de oficio por motivos de nulidad de pleno derecho de la aprobación definitiva de la modificación pormenorizada del Plan Urbanístico de Baztan en la parcela 208 del polígono 14 de Etxerri en Gartzain, dándose traslado del citado acuerdo a los representantes de la mercantil promotora*

aurkeztu zituzten.

Ofizioz berrikusteko espedientea azterturik, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legearen 102. artikuluan xedatutakoarekin bat, betiere 4/1999 Legeak emandako idazketari jarraiki eta 8 aldeko botoekin eta 5 kontrakoak, **Udalbatzak erabakitzen du:**

**Lehenik.**- Onestea Baztango Hirigintza Planaren aldaketa xehakatuaren behin betiko onespena zuzenbidean erabat deusez delako ofizioz berrikusteko espedientearen ebazpen-proposamena, Baztango Etxerriko 14. poligonoko 208. lurzatiari dagokionez. Proposamenaren zati bat ondoren dago transkribaturik, baina erantsi den dokumentazioan atxiki da eta osagai hauek ditu: Nafarroako Gobernuko Arkitektura Ondarearen Atalburuaren txostena, Joxe Martin Abaurrea letratuaren txostena eta Baztango Udal Arkitekto Cristina Arregiren txostena, eta horrez gain, Baztango Udaleko zinegotzi Maite Juliana Iturre Llano andreak Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aitzinean tartekatutako gora jotzeko errekurtsoa:

**EBAZPEN PROPOSAMENA, BAZTANGO ETXERRIKO 14. POLIGONOKO 208. LURZATIARI DAGOKION ALDAKETA XEHAKATUAREN BEHIN BETIKO ONESPENA ZUZENBIDEAN ERABAT DEUSEZ DELAKO OFIZIOZ BERRIKUSTEKO ESPEDIENTEAN**

PROMOCIONES ZIOZ SL enpresak alegazio-idazkia aurkeztu du Baztango Udalak egintzak berrikusteko espedientea hasi duelako; eta espedientea hasi du Baztango Udal Planean, Bentazaharrea erraten zaion eremuan, administrazio isiltasun bidez egindako aldaketa puntualaren behin betiko onespena ustez baliogabea delako. Alegazio-idazki hori ikusirik, txosten juridiko hau eman da, Nafarroako Kontseiluaren aitzinean aurkezteko, alegazioen idazkiarekin eta espedientearen gainerako atalekin batera.

Espediente honen garapen kronologikoaren zati gehienari dagokionez, espedientean bertan jasotakoari lotzen gatzaizkio. Kontuan hartu behar da Nafarroako Gobernuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko zuzendariak bere garaian emandako txostenaren balioari dagokiola prozedura honetako funtsezko eztabaida; horrenbertzez, funtsean

*ZIOZ SL, concediéndole audiencia por plazo de quince días en el que presentaron alegaciones.*

*Examinado el expediente de revisión de oficio, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 102 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común 30/92, en la redacción dada por la Ley 4/1999,* ***el Pleno*** *por 8 votos a favor y 5 en contra* ***acuerda:***

***Primero.***- *Aprobar la propuesta de resolución del expediente de revisión de oficio por motivos de nulidad de pleno derecho de la aprobación definitiva de la modificación pormenorizada del Plan Urbanístico de Baztan en la parcela 208 del polígono 14 de Etxerri en Gartzain que a continuación se transcribe parcialmente, que se aporta en documentación adjunta y se compone de informe del jefe de la Sección de Patrimonio Arquitectónico de Gobierno de Navarra, informe del letrado Joxe Martin Abaurrea e informe de la Arquitecta Municipal de Baztan, Cristina Arregi, además de Recurso de Alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra interpuesto por Doña Maite-Juliana Iturre Llano, concejala del Ayuntamiento de Baztan:*

***PROPUESTA DE RESOLUCIÓN EN EL EXPEDIENTE DE REVISIÓN DE OFICIO POR MOTIVOS DE NULIDAD DE PLENO DERECHO DE LA APROBACIÓN DEFINITIVA DE LA MODIFICACIÓN PORMENORIZADA EN LA PARCELA 208 DEL POLÍGONO 14 DE ETXERRI EN BAZTAN***

*A la vista de la presentación por parte de la mercantil PROMOCIONES ZIOZ SL del escrito de alegaciones en relación con la incoación por parte del Ayuntamiento de Baztan de expediente de revisión de actos en referencia a la nulidad que se presume de la aprobación definitiva por silencio administrativo de la modificación puntual del Plan Municipal de Baztan para el ámbito conocido como Bentazaharrea, se emite el presente informe jurídico para su presentación, junto con el escrito de alegaciones y el resto del expediente ante el Consejo de Navarra.*

*En cuanto a la mayor parte del desarrollo cronológico de este expediente nos remitimos a lo en él recogido. Hay que tener en cuenta que el debate fundamental en este procedimiento se refiere al valor del informe que en su día emitió el Director del Servicio de Patrimonio Histórico del*

eztabaida juridikoa da.
Hona hemen egintzarik aipagarrienak: Baztango Udalak Baztango Udal Planaren aldaketa isiltasun administratibo bidez ustez onetsi izana, katastroko 14. poligonoko 208. lurzatian, zeina 2012ko urtarrilaren 5eko data duen NAOn argitara eman baitzen; Baztango Udaleko zinegotzi Maite Juliana Iturre Llanok Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aitzinean gora jotzeko errekurtsoa jarri izana aipatu aldaketaren behin betiko onespenaren erabakiaren aurka; Nafarroako Administrazio Auzitegiak errekurtso hori atzera bota izana, garaiz kanpo zegoelako; egintzak berrikusteko espedientearen lehen bidalketa Nafarroako Kontseilura, izapidetzeko, eta Kontseiluak espedientea iraungitzat jo izana; izapidetze berri hau.
Alde horretatik, Udalak bere adostasuna agertu du Maite Juliana Iturre zinegotziak bere garaian Nafarroako Administrazio Auzitegian aurkeztutako errekurtsoan erabilitako argudioekin, eta era berean, Nafarroako Gobernuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko zuzendariak bere alegazioen idazkian erabilitakoekin. Argudio horiek prozedura honi erantsi zaizkio eta, funtsean, jadanik jasoak zeuden zinegotzi horrek eskaturik bere garaian aipatu zuzendariak eman zuen txostenean; argudio horiek eragin zuten, hain zuzen ere, berrikuspen-espedientea hastea.
Aurreko guztia gogoan eta PROMOCIONES ZIOZ SL enpresak aurkezturiko alegazioak ikusita, ondoriozta daiteke zuzenbidean erabat deusez dela Baztango Udal Plana katastroko 14. poligonoko 208. lurzatian aldatzeko behin betiko onespena, 2012ko urtarrilaren 5eko data duen NAOn argitara emandakoa, aplikatu beharreko hirigintza-araudiaren aurkakoa baita eta ezarritako prozedura guztiz alde batera utzi delako, Vianako Printzea Erakundearen txostena alboratu baita, aukera hori eta haren izaera loteslea ukatuz, hori guztia haren txostenek adierazitakoarekin bat.

**Bigarrena.**- Nafarroako Kontseiluari eskatzea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen 102. artikuluan eta Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legearen 16. artikuluan xedatutakoa betez, gai horri buruzko irizpena emateko, derrigorrezkoa baita aipatu erabakia zuzenbidean deusez dela deklaratzeko, eta xeda dezala aipatu organo aholku-emaileari kontsulta egitea,

*Gobierno de Navarra, por tanto, debate básicamente de carácter jurídico.*
*Los hechos más reseñables serían la propia aprobación presunta por silencio administrativo por parte del Ayuntamiento del Valle de Baztan de la modificación del Plan Municipal de Baztan en la parcela catastral 208 del polígono 14 publicado en el BON con fecha 5 de enero de 2012; el recurso de alzada de Doña Maite Juliana Iturre Llano, concejala del Ayuntamiento de Baztan, presentado ante el TAN contra el acuerdo de aprobación definitivo de la modificación mencionada; la desestimación del recurso por parte del TAN por su carácter extemporáneo; una primera remisión del expediente de revisión de actos para su tramitación ante este Consejo de Navarra del que se determinó su caducidad; esta nueva tramitación.*
*A este respecto el Ayuntamiento manifiesta su conformidad con la argumentación aportada en su día por la concejala Doña Maite Juliana Iturre en su recurso al TAN, así como con la que aporta el Director del Servicio de Patrimonio Histórico del Gobierno de Navarra en su escrito de alegaciones que se incorpora a este procedimiento y que, sustancialmente, estaba ya recogida en el informe que evacuó con motivo de la solicitud que la mencionada concejala le solicitó en su día y que motivó la incoación del expediente de revisión.*
*En vista de todo lo anterior y de las alegaciones presentadas por la mercantil PROMOCIONES ZIOZ SL, cabe concluir que la aprobación definitiva de la modificación del Plan Municipal de Baztan en la parcela catastral 208 del polígono 14 publicado en el BON con fecha 5 de enero de 2012 es nula de pleno derecho por ser contraria a la normativa urbanística de aplicación y haber prescindido total y absolutamente del procedimiento establecido al obviar el informe de Príncipe de Viana, denegando tal posibilidad y su carácter vinculante, todo ello en los términos en que se expresan sus informes.*

***Segundo.****- Solicitar al Consejo de Navarra, en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 102 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y 16 de la Ley Foral 8/1999, de 16 de marzo, del Consejo de Navarra, la emisión de dictamen al respecto, siendo el mismo preceptivo para proceder a la declaración de nulidad del citado acuerdo disponiendo que, la consulta al*

Nafarroako Kontseiluaren antolakuntza eta funtzionamendurako erregelamenduaren 27.3 eta 28., artikuluek ezarri bezala, Nafarroako Gobernuko lehendakariaren bidez; hartara, erabaki hau igorri da behar bezala eginbidetuta, administrazio-espedientearekin batera.

*órgano consultivo aludido, se efectuará tal y como prescriben los artículos 27.3 y 28 del Reglamento de Organización y funcionamiento del Consejo de Navarra, por conducto del Presidente del Gobierno de Navarra a cuyo objeto se procede a la remisión del presente acuerdo junto con el expediente administrativo debidamente diligenciado.*

**Hirugarrena.**- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42.5.c) artikuluarekin bat, prozedura bertan behera uztea xedatzea Nafarroako Kontseiluari beharrezkoa den txostena eskatzen zaionetik huraxe jasotzen den arte, bi gauza horiek interesdunei jakinaraziko zaizkiela adieraziz.

***Tercero.**- Disponer, ex artículo 42.5.c) de la LRJ-PAC, del procedimiento durante el tiempo que medie entre la solicitud del preceptivo informe al Consejo de Navarra y la recepción del mismo, indicando que serán notificados ambos extremos a los interesados.*

**Laugarrena.**- Erabaki hau Nafarroako Gobernuko lehendakariari jakinaraztea eta, erabakiaren eranskin gisa, administrazio-espedientearen kopia eginbidetua eranstea, Nafarroako Kontseilura igortzeko, legez aurreikusia dagoen bidea erabilita.

***Cuarto.**- Notificar el presente acuerdo al Presidente del Gobierno de Navarra, adjuntando como anexo al mismo una copia diligenciada del expediente administrativo para su remisión al Consejo de Navarra por el conducto legalmente previsto.*

**Bortzgarrena.**- ZIOZ SL enpresako ordezkariei erabaki honen berri ematea, izapidetze-egintzaren izaera duela adierazita.

***Quinto.**- Dar traslado del presente acuerdo a los representantes de la mercantil ZIOZ SL para su conocimiento, con indicación de su naturaleza de acto de trámite.*

## 5.- GENERO INDARKERIAREN BIKTIMAK LAGUNTZEKO ETA BABESTEKO ZERBITZUARI ATXIKITZEA.

## *5.- ADHESIÓN AL SERVICIO DE ATENCIÓN Y PROTECCIÓN PARA VÍCTIMAS DE LA VIOLENCIA DE GÉNERO (ATENPRO).*

Aurrekariak azalduta, arrazoiak eta ondorioak aurkeztuta, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz bere iritzia eman ondoren eta bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildutakoak, Udalbatzak, ahobatez **erabakitzen du** genero indarkeriaren biktimak laguntzeko eta babesteko zerbitzuari atxikitzea.

*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias de la misma, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia; sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión, el Pleno **acuerda** por unanimidad de sus miembros adherirse al servicio de atención y protección para víctimas de la violencia de género (ATENPRO).*

## 6.- LURRALDE-POLITIKA ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOKO MINISTERIOAK ETA NAFARROAKO GOBERNUAK SINATUTAKO LANKIDETZA HITZARMENARI ATXIKITZEA.

## *6.- ADHESIÓN AL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL MINISTERIO DE POLÍTICA TERRITORIAL Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y EL GOBIERNO DE NAVARRA.*

Aurrekariak azalduta, arrazoiak eta ondorioak aurkeztuta, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz bere iritzia eman ondoren eta bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildutakoak, Udalbatzak ahobatez **onartzen** du:

*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias de la misma, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión, el Pleno por unanimidad **acuerda:***

1.- Lurralde Politika eta Administrazio Publikorako Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmenari **atxikitzea,**

*1.- **Adherirse** al convenio de colaboración entre el Ministerio de Política Territorial y Administración Pública y el Gobierno de Navarra, para la prestación mutua de servicios de administración*

administrazio elektronikoko zerbitzuak elkarri emate aldera, 2010/12/15ean sinatutakoa, bigarren klausulan aurreikusitakoarekin bat, eta aipatu hitzarmenean zerrendatutako zerbitzu bakoitzean erabiltzailearentzat ezarrita dauden betebeharrez arduratzea, kasuan kasuko Eranskinetan ezarritakoari jarraiki.

2.- Erabakia Lurralde Politika eta Administrazio Publikorako Ministerioari **jakinaraztea**, bai eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari ere, Nafarroako Gobernuaren izenean eta ordezkari gisa, aipatu hitzarmenaren bigarren klausulan ezarritakoa betez.

*electrónica, suscrito con fecha 15/12/2010, de acuerdo con lo previsto en su cláusula segunda, asumiendo el cumplimiento de las obligaciones establecidas para el usuario en cada uno de los servicios relacionados en dicho convenio, en los términos que se establecen en los correspondientes Anexos.*

***2.- Notificar*** *el presente acuerdo de adhesión al Ministerio de Política Territorial y Administración Pública y al Departamento de Presidencia, Justicia e Interior en nombre y representación del Gobierno de Navarra, en cumplimiento de lo establecido en la cláusula segunda del mencionado convenio.*

**7.- GURATRANS EUROPAR PROIEKTUA. CRANA FUNDAZIOAREKIN SINATU BEHARREKO HITZARMENA.**

Aurrekariak azalduta, arrazoiak eta ondorioak aurkeztuta, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz bere iritzia eman ondoren eta bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildutakoak, Udalbatzak ahobatez **erabakitzen du:**

1.- **Onartzea** Tokiko Gobernu Batzordeak 2013ko apirilaren 5ean aurkeztutako proposamena, hitzarmena sinatzeko uraren tokiko kudeaketa hobetzeko hainbat ekintza egite aldera: uraren ingurumen ekoauditoriak udal instalazioetan, uraren kudeaketari buruzko gomendioak, eta azterlana diagnosi eta ekintza planarekin ibai esparruan Baztango erreketan. Aipatutako hitzarmena sinatzeko alkatea gaitzea.

2.- Honako akordio honen berri ematea Nafarroako Ingurumen arloko Baliabide Zentroa Fundazioari, bere ezagutza eta ondorioetarako.

***7.- PROYECTO EUROPEO GURATRANS. CONVENIO A SUSCRIBIR CON LA FUNDACIÓN CRANA.***

*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias de la misma, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión, el Pleno por unanimidad* ***acuerda:***

***1.- Aprobar*** *la propuesta elevada por la Junta de Gobierno Local mediante acuerdo de 5 de abril de 2013 de suscribir el Convenio para la realización de distintas acciones para la mejora de la gestión local del agua: auditoría ambiental de agua en las instalaciones municipales, recomenaciones sobre gestión de la demanda y estudio con el diágnostico y plan de acción en el espacio fluvial, regatas del Valle de Baztan, y habilitar a la alcaldesa para la firma del mismo.*

***2.- Notificar*** *el presente acuerdo a la Fundación Centro de Recursos Ambientales de Navarra para su conocimiento y efectos.*

**8.- SAGARDOREN TURISMOKO ELKARTEA.**

Aurrekariak azalduta, arrazoiak eta ondorioak aurkeztuta, Alkatetzak Sagardoren Turismoko Elkartearen eskubide osoko kidea izatea proposatzen du, bilkura honen espedientean 8. puntu bezala agertzen dena.

Udalbatzak 8 aldeko botoekin eta 5 kontrakoekin **proposamena onartzen du** eta alkatea gaitzen du akordio hau bideratzeko behar diren egintza guztiak burutzeko.

***8.- ASOCIACIÓN DEL TURISMO DE LA SIDRA.***

*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias de la misma, por parte de Alcaldía se propone ser miembro de pleno derecho de la Asociación del Turismo de la Sidra, cuyos estatutos constan como punto 8 en el expediente de la presente sesión.*

*El Ayuntamiento por 8 votos a favor y 5 en contra* ***admite la propuesta*** *y habilita a la alcaldesa para ejercer los actos necesarios a fin de cumplir con el presente acuerdo.*

**9.- BAZTANEN EZKONTZA ZIBILAK ETA HILDAKOEN ALDEKO AGURRAK EDO OMENALDI ZIBILAK EGITEKO ORDENANTZA. HASIERAKO ONESPENA.**

Aurrekariak azalduta, arrazoiak eta ondorioak aurkeztuta, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz bere iritzia eman ondoren eta bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildutakoak, Udalbatzak ahobatez **onartzen du:**

1.- "Baztanen ezkontza zibilak eta hildakoen aldeko agurrak edo omenaldi zibilak egiteko ordenanza" **hasiera batean onartzea.**

2.- Onetsitako ordenantza **jendaurrean jartzea**, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita eta udal honen oholean hogeita hamar egun baliodunean, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez ditzaten.

3.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, jendaurreko epean inork alegaziorik aurkeztu gabe iragaten bada, ordenantza behin betikoz onetsirik gelditukoda, eta testua osorik emanen da argitara Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

***9.- ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE MATRIMONIOS CIVILES Y DESPEDIDAS U HOMENAJES CIVILES EN EL VALLE DE BAZTAN. APROBACIÓN INICIAL.***

*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias de la misma, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión, el Pleno por unanimidad **acuerda:***

*1.- **Aprobar inicialmente** la "ordenanza municipal reguladora de matrimonios civiles y despedidas u homenajes civiles en el Valle de Baztan".*

*2.- **Someter** dicha ordenanza a **información pública**, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios de esta entidad, por término de treinta días, para que los vecinos e interesados legítimos puedan examinarlo y formular las reclamaciones, reparos u observaciones que tengan por conveniente.*

*3.- Señalar que dicha ordenanza se entenderá aprobada definitivamente una vez transcurrido el plazo de información pública si no se hubiesen presentado reclamaciones, reparos u observaciones, de conformidad con lo preceptuado en el artículo 325 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio de la Administración Local de Navarra.*

**10.- PEDRO Mª ESARTE MUNIAIN JAUNAK EGINDAKO ESKAERA.**

Aurrekariak azalduta, arrazoiak eta ondorioak aurkeztuta, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz bere iritzia eman ondoren eta bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildutakoak, eta direnak,

**Garbiñe Elizegi, Alkatea**: Bere garaian Pedro Mª Esartek sartu zuen eskari bat eta udaleko osoko bilkuran aztertzea eskatu zigun. Guk aipatu genion Elizondoko herriak hartutako erabakia zela kontrabandisten harriena. Berdintasun batzordetik egin zen prentsa ohar bat eta badirudi batzuk modu pertsonalean hartu zutela. Berak planteatu zuen nahi zuela postura politikoa azaltzea osoko bilkurak. Guk bat egiten dugu berdintasun batzordeak esaten duenarekin eta iruditzen zaigu penagarria aukera hau galdu izana parekotasunaren alde. Bazen erabaki bat herriko batzarreak errandakoa, beharrezkoa ikusten zela emakumearen parte hartzea azalaraztea eskultura horretan, eta guk bozkatu behar dugu ez

***10.- SOLICITUD DE D. PEDRO Mª ESARTE MUNIAIN.***

*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias de la misma, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión, y que son,*

***Garbiñe Elizegi, Alcaldesa:** En su día, Pedro Mª Esarte realizó una solicitud en la que solicitaba que se tratara por el Pleno. Nosotros le comentamos que la decisión sobre las piedras de los contrabandistas fue tomada por el pueblo de Elizondo. La comisión de igualdad publicó un escrito que algunos lo tomaron como algo personal. Él planteó que quería que el Pleno indicara su postura política. Nosotros estamos a favor del escrito de la comisión de igualdad y nos parece lamentable haber perdido esta ocasión a favor de la paridad; había un acuerdo del Batzarre de Elizondo que mencionaba la necesidad de que apareciera la participación de la mujer en la escultura. Nosotros votaremos la no*

onartzearen alde.

**Maite Iturre, NABAI (2011)**: Ez dagokio osoko bilkurari hau onartzea. Udalari eskatzen dio onartzea Elizondoko herriari egindako donazioa. Herriari egin bazion donazioa berak erabaki behar du. Berdintasun batzordeak esandakoarekin bat nago. Hala ere, ni abstenituko naiz, uste dudalako ez dagokiola osoko bilkura honi donazio hori onartzea.

**Iñigo Iturralde, Baztango Ezkerra**: Gure aldetik ikusten dugu Pedro Marik egindako donazioa beraien arteko gauza dela, herritarren arteko gauza. Guri ez dagokigu onartzea edo ez. Herriari egin dio donazioa eta herriak onartzen badu, guk onartuko dugu. Gure botoa proposamenaren aldekoa da.

**Mª Carmen Iribarren, UPN**: UPN udal taldeak honakoa agertzen du:

1.- Elizondoko herriari egindako donazioa da. Gure ustez, herriak onartu edo baztertu beharko du donazioa eta ez osoko bilkurak.

2.- Elizondoko herriaren eskumenetan ez gara sartuko, ezta interpretatuko edo epaituko Pedro Mari Esarteren donazioari buruz hartutako erabakia.

3.- Guri ez dagokigun edozein iritzi aparte utzita, Pedro Mª Esarteren ekintza eskertzen dugu, eskuzabaltasunaren ildotik Baztango herri bati egindako eskaintza Baztan osoari egin diolako.

4.- Argitu nahi dugu berdintasun batzordearen edozein agerraldi publikok ez duela Baztango Udala ordezkatzen, honek osoko bilkuran onartu arte.

5.- Eskatzen diogu Udal honi jarrera berdina izan dezala antzeko jarduera guztietan, Baztanberriko lurretan jarri zenean udal baimenarik gabe egin zelako. Berriki Lekarozko kanpuseko biribilgunean antzeko oroigarri bat jartzeko udal baimena eskatu zitzaien.

6.- Egoera honen aitzinean jakinaraztea Pedro Mari Esarteri bat egiten dugula bere harridurarekin.

**Garbiñe Elizegi, Alkatea**: Inork ez du esan berdintasun batzordeak plazaratzen duena udalak errandakoa denik. Horregatik Pedro Maria Esartek planteatzen duena da ikusteko udala ados dagoen horrekin edo ez. Guk, horren arira bozkatuko dugu, berak eskatzen zuena zen gure posizio politikoa eta gure posizio politikoa da guk ez ditugula onartzen harri hoiek aipatutako arrazoiengatik. Eskuzabaltasuna, donazioa... esan

*aceptación.*

***Maite Iturre, NABAI (2011):*** *La aprobación no corresponde al Pleno. Solicita al Ayuntamiento que admita la donación realizada al pueblo de Elizondo. Si la donación fue al pueblo de Elizondo éste deberá decidir al respecto. Estoy de acuerdo con lo que dice la comisión de igualdad, pero aún así me abstendré, ya que la decisión no corresponde al Pleno.*

***Iñigo Iturralde, Baztango Ezkerra:*** *A nuestro parecer el tema de la donación realizada por Pedro Mari es un tema entre las dos partes, y corresponde a los vecinos de Elizondo. No nos corresponde a nosotros la aceptación o no. Nuestro voto es a favor de la propuesta.*

***Mª Carmen Iribarren, UPN:*** *El grupo municipal UPN deja constancia de lo siguiente:*

*1- Entendemos que la donación ha sido al pueblo de Elizondo. Creemos que éste y no el pleno municipal es quien debe aceptar o rechazar la donación.*

*2- No vamos a interferir en las competencias del pueblo de Elizondo ni vamos a interpretar o juzgar su decisión, con respecto de la donación de Pedro Mari Esarte.*

*3- Independiente de cualquier otra consideración que no nos corresponde hacer, apreciamos el gesto de Pedro Mª Esarte, por lo que en cuanto a generosidad supone, dado que todo gesto hacia cualquiera de los pueblos lo es al Baztan en su unidad.*

*4- Queremos aclarar que cualquier declaración pública de la comisión de igualdad no representa al Ayuntamiento de Baztan, en tanto no haya sido aprobada por éste en sesión plenaria.*

*5- Exigimos a este Ayuntamiento la misma actitud con todas las actuaciones similares a la que nos ocupa, cuyo emplazamiento e instalación en terrenos de Baztanberri no dispone de autorización municipal, autorización que se exigió recientemente a otro elemento ornamental conmemorativo instalado en la rotonda del campus de Lekaroz.*

*6- Hacer saber a Pedro Mª Esarte que compartimos su estupor por la situación generada.*

***Garbiñe Elizegi, Alcaldesa:*** *Nadie ha dicho que lo publicado por la comisión de igualdad sea lo dicho por el ayuntamiento. Por eso plantea Pedro Mª Esarte si el ayuntamiento está de acuerdo o no. Nosotros votaremos al respecto. Lo que él quiere ver es nuestra postura política y nuestro*

dituzu, baina harri horiek herritik ordaindu dira. Nik uste azkeneko batzarrean onartu zela harri horiek herriak ordaintzeko diru bat, Pedro Marik eskatuta, argitzearren. Autorizazioaren arira, Elizondoko herriarekin egingo da bertze herriekin egin den bezala. Izan dira bertze herri batzuk, herriak, ez partikularrak, obra baimenik gabe egin dutenek eta esan zaie herriek ere obra baimena eskatu behar dutela. Zer gertatzen da? Zehapen espedientea egiterakoan ezin diogu gure buruari egin, ezin diogu herriari ireki. Bilera bat egingo da Elizondoko herriarekin eta esango zaie besteek bezala, baimena eskatu behar dutela.

**Isabel Olave, UPN**: Ez dakit informazio berdina dugun. Zer esan nahi duzu Elizondoko herriak ordaindu duela aipatzen duzunean?

**Garbiñe Elizegi, Alkatea**: Ez dakit ordainduta dagoen. Azkeneko batzarrean erabaki zen, berak eskatuta, harriaren kostua herriak hartzea bere gain. Hori batzarrean onartu zen.

**Mikel Ortega, Bildu**: Harriak balio duena, materiala. Gero lantzea ez.

**Isabel Olave, UPN**: Orduan, materiala eta jartzea herriak ordaintzen du, eskultura ez.

**Garbiñe Elizegi, Alkatea**: Hemen proposatzen dena da, onartzea edo ez eskultura hauek. Bakoitzak bere botoa azaldu.

**Iñigo Iturralde, Baztango Ezkerra**: Uste dut hori ez dela proposamena.

**Garbiñe Elizegi, Alkatea:** Hori da eskabidean berak eskatzen duena.

**Isabel Olave, UPN**: Batzorde informatiboaren ondotik beste eskaera gehigarri bat erantsi zion, berari interesatzen zitzaiona argiago agertzen zena.

**Garbiñe Elizegi, Alkatea**: Galdera honen aitzinean erabakia hartu behar duzu. Erantzuten ahal duzu era batean edo bestean zure azalpena emanez. Galdera argi dago, esaten ahal duzu onartzen duzula uste duzulako Elizondok onartu behar duela edo ez duzula onartzen honengatik eta honengatik. Nik planteatzen dut hemen jartzen dena. Bozkatzen dena da onartzen diren edo errefuxatzen diren eskultura hauek.

Udalbatzak kontrako 5 botoekin, aldeko 2 botoekin eta 6 abstentzioekin **erabakitzen du:**

*posicionamiento. Nosotros no admitimos esas esculturas por las razones que hemos mencionado anteriormente. Has comentado por su generosidad, donación..., pero esas piedras han sido abonadas por el pueblo. Creo que se aprobó en el último batzarre el tema del pago solicitado por parte de Pedro Mª Esarte. En cuánto al tema del permiso, con el pueblo de Elizondo se procederá de la misma forma que con otros pueblos, no particulares, que han realizado obras sin licencia y se les ha advertido de que la tienen que solicitar. ¿Qué sucede? Que al incoar un expediente sancionador, no se puede contra el pueblo y no podemos realizarlo a nosotros mismos. Se convocará a una reunión al pueblo de Elizondo y se les explicará como a todos, que hay que solicitar permiso.*

***Isabel Olave, UPN:** No sé si estamos manejando la misma información. ¿A qué te refieres cuando dices que el pueblo de Elizondo es quien ha pagado?*

***Garbiñe Elizegi, Alcaldesa:** En el último batzarre se acordó pero no sé si se ha abonado o no. Él pidió que se le abonara el gasto de la piedra y eso es lo que se acordó en el batzarre.*

***Mikel Ortega, Bildu:** El valor de la piedra, no el trabajarla.*

***Isabel Olave, UPN:** Entonces, el material y la colocación lo paga el pueblo, la escultura no.*

***Garbiñe Elizegi, Alcaldesa:** Lo que aquí se propone es aceptar o no las esculturas. Cada uno que explique su voto.*

***Iñigo Iturralde, Baztango Ezkerra:** No creo que esa sea la propuesta.*

***Garbiñe Elizegi, Alcaldesa:** Eso es lo que él pide en su solicitud.*

***Isabel Olave, UPN:** Después de la comisión informativa, sí que se añadió a esta petición otra que desarrollaba más lo que a él le interesaba que se dijera.*

***Garbiñe Elizegi, Alcaldesa:** Ante la pregunta formulada tienes que decidir. Puedes responder en un sentido u otro, dando la explicación pertinente. La pregunta es clara, puedes decir que la admites porque tiene que admitirla el pueblo de Elizondo o que no la admites por esto o por aquello. Yo planteo lo que aquí se indica. Aquí lo que se vota es si se aprueba la aceptación o rechazo de estas esculturas.*

*El Pleno por 5 votos en contra 2 a favor y 6 abstenciones **acuerda:***

1.- Pedro Mª Esarte Muniain jaunak egindako eskaera **ez onartzea.**
2.- Akordio honen **berri ematea** Pedro Mª Esarte Muniaini, bere ezagutza eta ondorioetarako.

*1.- No aceptar la solicitud de D. Pedro Mª Esarte Muniain.*
*2.- **Notificar** el presente acuerdo a D. Pedro Mª Esarte Muniain, para su conocimiento y efectos.*

**11.- 57/2013 ALKATETZA EBAZPENA. EGINKIZUNAK BERTZE BATEN ESKU UZTEA.**
Alkateak Ebazpenaren edukiak azaltzen ditu eta Osoko Bilkurak ahobatez ebazpena **berresten** du.

***11.- RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA 57/2013. DELEGACIÓN DE FUNCIONES.***
*Alcaldía da a conocer el contenido de la Resolución de Alcaldía, que el Pleno **confirma** por unanimidad.*

**12.- MOZIOAK:**
**12.a.- Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma.**
Mozioa behin azalduta, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz bere iritzia eman ondoren eta bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildutakoak, alkateak bilkura honen espedientean 12.a puntu bezala agertzen den mozioa bozkatzera deitzen du:
Aldekoak 8, Bildu, Baztango Ezkerra eta NA-BAI (2011)
Kontrakoak 5, UPN
Udalbatzak mozioa **onesten du** eta Garbiñe Elizegi **izendatzen du** ordezkari bezala.

***12.- MOCIONES:***
***12.a.- Plataforma de Defensa del Patrimonio Navarro***
*Explicada la moción, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión, Alcaldía llama a votar la aprobación de la moción, que consta como punto 12.a en el expediente de la presente sesión:*
*A favor 8, Bildu, Baztango Ezkerra y NA-BAI (2011)*
*En contra 5, UPN*
*El Pleno **aprueba** la moción y **nombra** a Garbiñe Elizegi como representante.*

**12.b.- Toki Administrazioaren razionalizazio eta jasangarritasun Lege Aurre-proiektua.**
Mozioa behin azalduta, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz bere iritzia eman ondoren eta bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildutakoak, alkateak bilkura honen espedientean 12.b puntu bezala agertzen den mozioa bozkatzera deitzen du.
Aldekoak 8, Bildu, Baztango Ezkerra eta NA-BAI (2011)
Abstentzioak 5, UPN
Udalbatzak mozioa **onesten du.**
**Begoña Sanzberro, UPN:** Aurreproiektuaren zati batekin ados gaude eta beste batekin ez. Azken hau Nafarroako Gobernua borrokatzen ari da, horregatik gure abstentzioa.

***12.b.- Anteproyecto de la Ley de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local.***
*Explicada la moción, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión, Alcaldía llama a votar la aprobación de la moción, que consta como punto 12.b en el expediente de la presente sesión:*
*A favor 8, Bildu, Baztango Ezkerra y NA-BAI (2011)*
*Abstenciones 5, UPN*
*El Pleno **aprueba** la moción.*
***Begoña Sanzberro, UPN:** Compartimos parte del anteproyecto y parte no. Este último ya se está peleando por el Gobierno de Navarra, de ahí nuestra abstencion.*

**12.d.- 197/2006 Doktrina: zigor gehigarriaren ankerkeria.**
Mozioa behin azalduta, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz bere iritzia eman ondoren eta bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildutakoak, alkateak bilkura honen espedientean 12.d puntu bezala agertzen den mozioa bozkatzera deitzen du.

***12.d.- Doctrina 197/2006: la crueldad de la pena añadida.***
*Explicada la moción, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión, Alcaldía llama a votar la aprobación de la moción, que consta como punto 12.d en el expediente de la presente sesión:*

Aldekoak 8, Bildu, Baztango Ezkerra eta NA-BAI (2011)
Kontrakoak 5, UPN
Udalbatzak mozioa **onesten du.**

*A favor 8, Bildu, Baztango Ezkerra y NA-BAI (2011)*
*En contra 5, UPN*
*El Pleno aprueba la moción.*

**12.e.- Euskal Herria Palestina eguna.**
Mozioa behin azalduta, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz bere iritzia eman ondoren eta bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildutakoak, alkateak bilkura honen espedientean 12.e puntu bezala agertzen den mozioa bozkatzera deitzen du.
Aldekoak 8, Bildu, Baztango Ezkerra eta NA-BAI (2011)
Kontrakoak 5, UPN
Udalbatzak mozioa **onesten du.**

***12.e.- Día Euskal Herria Palestina.***
*Explicada la moción, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión, Alcaldía llama a votar la aprobación de la moción, que consta como punto 12.e en el expediente de la presente sesión:*
*A favor 8, Bildu, Baztango Ezkerra y NA-BAI (2011)*
*En contra 5, UPN*
*El Pleno aprueba la moción.*

**12.f.- Baztango Ehiza eta Arrantzarako Elkartea. Mozioak: Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzko 17/2005 Foru Legea aldatzeko eta liztor beltzari buruzkoa.**
Osoko bilkurak ahobatez **erabakitzen du puntu hau erretiratzea.**

***12.f.- Club de Cazadores y Pescadores de Baztan. Mociones: Para promover un cambio de la Ley Foral 17/2005, de Caza y Pesca de Navarra y sobre la avispa asiática.***
*El pleno por unanimidad decide retirar el presente punto.*

**GALDE- ESKEAK**
**Mª Carmen Iribarren, UPN:** Seme kuttunen argazkiak berriz jarriko al dira?
**Garbiñe Elizegi, Alkatea:** Ez, ez dira bueltatuko. Begiratu dugu zuek prentsaurrekoan aipatutako akordioa eta ez da ezer apurtzen ari, zuek esaten zenuten bezala.

***RUEGOS Y PREGUNTAS***
***Mª Carmen Iribarren, UPN:*** *¿Se van a reponer las fotografías de los hijos adoptivos?*
***Garbiñe Elizegi, Alcaldesa:*** *No se van a reponer. Hemos revisado el acuerdo que mencionasteis en rueda de prensa y en el mismo no se señala nada al respecto, y por lo tanto nada se incumple.*

Jarraian Alkate-Lehendakari andereak bilkura amaitutzat eman du arratsaldeko 19:37ean, Idazkari gisa horren guztiaren fede ematen dut.

*Seguidamente, por la Sra. Alcaldesa-presidenta, se levanta la sesión, siendo las 19:37 de la tarde, de todo lo cual, como Secretario doy fe.*

ALKATEA
*LA ALCALDESA*

IDAZKARIA
*EL SECRETARIO*